

.....//.....

**Bilera mota:** Ezohiko Udal Osoko Bilkura.

**Data:** 2015-07-29 (asteazkena)

**Ordua:** Arratsaldeko 19:00etan..

**Lekua:** Udaletxeko Batzar Aretoan

**Erreferentzia:**E-15-08

---

Honen bitartez eta alkate jaunaren aginduz, aipaturiko ordu eta lekuan egingo den Ezohiko Udal Osoko Bilkurarako deialdia luzatzen dizut.

Ezkio-Itsaso, 2015eko uztailaren 27a  
Idazkari-kontuhartzailea

---

## **EGUNEKO GAI ZERRENDA**

- 1.- Udalerri independentea eratzeko Itsasoren banaketa espedienterako, Itsaso Bherria Udalerria Berreskuratzeko Elkartek aurkeztutako administrazio-espedienteari hasiera ematea onartzea, 1690/86 Errege Dekretuko 11. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- 2.- “Alegi-1º faseko bidegorri proiektua” gauzatzeko lursailak eskuratzeko adostu diren kontratuak onartzea.
- 3.- Lehiaketa hutsik geratu ondoren, publizitate gabeko negoziatu prozedura erabiliz “Ezkio-Itsasoko Herri Eskola eraikineko ostalaritza zerbitzuen kontratazioa” berriro lizitatzeko Ekonomiko-Administratibo baldintza zehatzen plegua onartzea.

.....//.....

.....//.....

## **2015EKO UZTAILAREN 29KO EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA**

Ezkio-Itsason, bi mila hamabosteko uztailaren 29an

Egun honetako arratsaldeko 19:00ak direnean, Udaletxeko Areto Nagusian Udal Plenoa biltzen da, Garikoitz Aiesta Etxaniz alkatearen lehendakaritzapean, lehenengo deialdian eta alde zurretik eta behar den eran Udalkide guztiei igorri zaien eguneko Aztergai Zerrendaren arabera.

Batzarreratzen dira ondoko Udalkide hauek:

- Jose Ignacio Etxezarreta Estala (EIK).
- Ander Unzurrunzaga Idiakez (EIK).
- Gorka Sasieta Barrenetxea (EIK).
- Mikel Igartua Anduaga (EIK).
- Maria Luisa Pildain Cenitagoya (EIK).
- Jose Maria Barrenetxea Aldanondo (EIK).

Ez dira agertzen, baina beren ezinetorria desenkusatzuz:

- Inor ez

Ez dira agertzen, baina beren ezinetorria ez dute desenkusatzuz:

- Inor ez.

Idazkari, Udaleko idazkari-kontuhartzaileak egiten du:

- Martin Iparragirre Mujika.

.....//.....

.....//.....

Segidan eta Presidentearen baimenez, nik, idazkari honek, Batzarra egin daitekeela adierazten dut, zeren Udalari dagozkion eta osatzen duten Udalkide gehienak bertaratu baitira, horrela apirilaren 2ko 7/1.985 Legearen 46-2 artikuluan eta azaroak 28ko 2.568/1.986 Erret Dekretuz onarturiko Toki Erakundeen Antolakuntza, Iharduera eta Legezko Jaurbidearen Erregelamenduaren 90.1 artikuluan xedatzen denarekin bat etorritz.

.....//.....

.....//.....

**LEHEN PUNTUA:**

**UDALERRI INDEPENDIENTEA ERATZEKO ITSASOREN  
BANAKETA ESPEDIENTERAKO, ITSASO BHERRIA  
UDALERRIA BERRESKURATZEKO ELKARTEAK  
AURKEZTUTAKO ADMINISTRAZIO-ESPEDIENTEARI  
HASIERA EMATEA ONARTZEA, 1690/86 ERREGE DEKRETUKO  
11. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA.**

**HONAKO HAU IKUSITA:**

Itsaso Bherria Elkarte Eragileak “Udalerrri Independientea Eratzeko Itsasoren Banaketa Espedienterako” dokumentua aurkeztu duela 2015eko uztailaren 27an.

Horrela eskatu zaiola eta, Gorka Sasieta zinegotziak aurkeztutako dokumentazioari buruzko dagozkion azalpenak eman dituela, azpimarratuz eskaeran jasotzen den bezala jendaurreko epealdi hori irailean irekitzea proposatzen dela.

**KONTUAN HARTUTA:**

Alkateak esan duenaren arabera, agintaldi honetarako kandidatura bakarra osatu zenean, hartutako beste konpromiso batzuen artean, Itsasotik ekartzen zen espedientea jendaurrean jartzeko konpromisoa hartu zela, modu horretan espedientea abian jartzeko.

Alkateak gogorarazi duela Ezkio eta Itsaso auzoetako ordezkariekin osatutako Batzordea lanean jarraituko duela eta hurrengo bilera irailaren 16an egingo dela.

Idazkariak bere aldetik argitu nahi izan duela Itsaso Bherria Elkarte Eragileak aurkeztutako dokumentu horretan Populazio eta Udal Barrutiak arautzen dituen uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuko 14. artikuluan

.....//.....

.....//.....

aurreikusten den dokumentazioa jasotzen dela, eta gaur hartzen den erabakia ez dokumentua bera onartzea, baizik eta dokumentua jendaurrean jartzea soilik onartzea izango dela.

Hori dena kontuan hartuta, gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal Osoko Bilkurak aho batez, honako hau,

### **ERABAKI DU:**

#### **BAKARRA :**

Populazio eta Udal Barrutiak arautzen dituen uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuko 11. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Itsaso Bherria Elkarte Eragileak aurkeztutako « Udalerri Independentea Eratzeko Itsasoren Banaketa Espedienterako » dokumentua, jendaurreko erakustaldian jartzea irailtik aurrera 30 laneguneko epean , iragarkiak azkeneko argitalpena duen hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epe horretan espedientea aztertu ahal izango da eta ongi irizten diren adierazpen edo erreklamazioak aurkeztu.

#### **BIGARREN PUNTUA :**

**“ALEGI 1º FASEKO BIDEGORRI PROIEKTUA” GAUZATZEKO LURSAILAK ESKURATZEKO ADOSTU DIREN KONTRATUAK ONARTZEA.**

#### **HONAKO HAU IKUSITA:**

AHTko obrak zirela eta, Igartzolako betelanera iristeko bidea egin zela Santa Luzia erreka ondoan, horretarako jabeen dagokien lursailen behin-behineko okupazioa eginez.

.....//.....

.....//.....

Gune horretan AHTko lanak amaitu ondoren eta herriko bidegorri sarea zabaltzeko asmoarekin, Udala jabeekin adostasun batera heldu zela Santa luzia erreka ondotik Alegirantz doan bidea berregiteko , proiektu honi “Alegi 1º fase proiektua” deituz.

### **KONTUAN HARTUTA:**

Jabeekin dauden akordioak jasotzeko kontratu zirriborroak prestatu direla (deialdiarekin batera banatu dira) eta halaber afekzioen neurketa ere egin dela. Honako hauek direla prestatutako kontratuen ezaugarri nagusienak:

- Afektatuak: Ricardo Sainz Fernandez: 158,30 m2 eta Maria Victoria Garcia Agirrebengoa: 565,30 m2.
- Erosketa prezioa: 10 euro m2. bakoitzeko.

Hori dena kontuan hartuta, gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal Osoko Bilkurak aho batez, honako hau,

### **ERABAKI DU:**

#### **LEHENA :**

« Alegi-1º faseko bidegorri proiektua » gauzatzeko Ricardo Sainz Fernandez eta Maria Victoria Garcia Agirrebengoaen lursailak eskuratzeko aurkeztu diren kontratuak onartzea aurkeztu diren eran.

#### **BIGARRENA :**

Erosketa hauek gauzatu ahal izateko edozein dokumentu publiko nahiz pribatua sinatzeko ahalmena alkate den Garikoitz Aiesta Etxaniz jaunari ematea.

.....//.....

.....//.....

**HIRUGARRENA :**  
**LEHIAKETA HUTSIK GERATU ONDOREN, PUBLIZITATE GABEKO NEGOZIATU PROZEDURA ERABILIZ « EZKIO-ITSASOKO HERRI ESKOLA ERAIKINEKO OSTALARITZA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA » BERRIRO LIZITATZEKO EKONOMIKO-ADMINISTRATIBO BALDINTZA ZEHATZEN PLEGUA.**

**HONAKO HAU IKUSITA :**

Ezkio-Itsasoko Udal Osoko Bilkurak, 2015eko maiatzaren 21eko bileran, Ezkio-Itsasoko Herri Eskola eraikineko ostalaritza zerbitzuen kontratazioa esleitzeko lehiaketa arautuko zuen Ekonomiko-Administratibo baldintza zehatzen plegua onartu zuela.

Iragarkia 2015eko ekainaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, ez zela interesaturik aurkeztu.

**KONTUAN HARTUTA :**

2015-2016 ikasturtea Herri Eskola berrian hasiko dela irailetik aurrera , eta horregatik premiazkoa dela lehenbailehen Herri Eskola eraikineko ostalaritza zerbitzua ustiatuko duen esleipendunen bat izatea.

Esleipendunaren bat bilatzeko, besteak beste pauso hauek ematen ari direla : Kontaktuak egon dira Uggasa, Basque Culinary Center, Gipuzkoako Ostalaritza Elkarte, Arrasateko Lanbide Eskolarekin, eta abar.

.....//.....

.....//.....

Lehiaketa hutsik geratu denez, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginean xedatutakoaren arabera posible dela lizitazio berria publizitate gabeko negoziatu prozedura erabiliz egitea, eta baita pleguari behar diren egokitzapenak egitea.

Hori dena kontuan hartuta, gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal Osoko Bilkurak aho batez, honako hau,

### **ERABAKI DU:**

#### **LEHENA :**

Lehiaketa hutsik geratu ondoren, publizitate gabeko negoziatu prozedura erabiltzeko « Ezkio-Itsasoko Herri Eskola Eraikineko Ostalaritza Zerbitzuen Kontratazioa » berriro lizitatzeko Ekonomiko-Administratibo Baldintza Zehatzen Plegua onartzea.

#### **BIGARRENA :**

Beharren arabera pleguan egin beharreko egokitzapenak aurreikustea, eta gonbidapena gutxienez 3 enpresa edo interesatuei bidaltzea.

Beterik deialdiaren helburua, 20:00ak direnean, eta aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, Udal Osoko Bilkura bukatutzat ematen da. Nik, idazkari bezala, akta hau idazten dut.

Ezkio-Itsaso, 2015eko uztailaren 29a

O.E.  
ALKATEA

IDAZKARIA

.....//.....